ZENBAT BURIJ
Aintzane Garate

ERREPORTAIA
Elgoibarko Jaiotza

EliifiGIIFIR11/A
98 urteari errepasoa

R[1.91:P,7,1M
Mari Karmen Elortza

13M
'Bai Euskarari'
kanpaina

# BaRREN

1 98ko abenduaren 24a
urtea - 261. zkia

ELGOIBARKO ASTEKARIA

## Elgoibarko Jaiotza
## JGabonetake oparirili ederrena



BaRRENeko lantalde guztiaren izenean, Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On!

Elgoibarko Udalak Jai zoriontsuak
opa dizkizue herritar guztioi

Urte Zaharra
ondo bukatu
eta Berria
hobeto hasi




**ELGOIBARKO UDALA**

# Zorionak eta Urte Berri Onii

Urte berriaren atarian
nire lankide guztien
izenean eta nirean,
Bakea eta Zoriona.

Jose Ma Bamstiabengoa
Aldibi Autoak-eko gerentea




Aldibi

Olaso kalea, 23 - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24

Zigarrola kalea, 1 - 20500 **Arrasate**
Tel: 943 71 20 02 Faxa: 943 79 65 65

Mercedes-Benz
IZAR AUTOAK, S.L.

NISSAN
ALDIB1 AUTOAK, S. A.

opp;,/,
ALMOVIL, S. L.

v-ouvro
AUTO SUECIA

MITSUBISHI MOTORS
ALD1KAR AUTOAK, S. L.

HYUI7C11:11
MUSAKOLA AUTOAK, S.




,110-1(
1-101
Vnbtlo
k
11\11.\z:
ikastasoa

**Hemendik aurrera larunbatetan klase intentsiboaki**

# "711111"1© "1":17/A

## NAGUSIENTZAKO KLASEAK

| ORDUTEGIA | MAILA | ORDUAK-ASTEKO |
|---|---|---|
| Goizez | Oinarrizkoa<br>Ertaina<br>Ertaina-altua | 5ordu / 3ordu |
| Eguerdian<br>14:30 15:30 | Ertaina | 5ordu / 3ordu |
| Arratsaldez | Oinarrizkoa<br>Ertaina<br>Ertaina-altua | 5ordu / 3ordu |

*Urtarrilean izena* eman ezkero, matrikula doani

P. MUGURUZA, 8 • TEL/FAxA: 943 74 02 36 • TEL: 943 74 35 12 • E-MAIL: kensington@redestb.es
EGUZKI AUZOA, 7 • 20577 ANTZUOLA TEL: 943 78 70 30



AINTZANE GARATE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Bi hankadun astoei

Kaixo irakurleok: idatzi honekin amaitzen dut BARRENekin hartutako konpromezua eta beraz, meriturik izan ez arren, esango dizuet asko kostatzen zaidala zuengana euskaraz hurbiltzea. Abendua amaitu baino lehen, azken idatzi hau aurkeztu behar nuen baina ez nuen gai aproposik aurkitzen, eta hara non, gaur goizean, esnatu berri naizenean, Euskadi Irratiak, berri txar batekin piztu didan boligrafoa eta papera hartzeko gogoa!

Agian, hau azaldu orduko ez da notizia izango. Izan ere, hain azalekoak bihurtzen ari gara! Hala ere, oroimena astintzea ondo etorriko zaigula uste dut.

Aitor Zabaleta Real Sociedad taldeko zaletuaren heriotzaz ari naiz. Nik beti esaten dut, sentsaziorik gogorrenetarikoa egoera baten aurrean sentitzen den inpotentzia dela. Hori da nik honelako gauzekin sentitzen dudana, eta nola imajinatu zer pentsatuko duten senitartekoek...

Ezertarako ez nuke nahi politikan sartu, ezta gutxiago ere, baina hainbeste aldiz entzun behar izan dugu euskaldunok 'biolentoak' garela! Orain nik gustura galdetuko nieke bi hankadun asto horiei: 'biolentoak' nor dira? Galdera hau ez dut luzatzen orain ezbehar hau gertatu delako, sarritan probokazioak jasaten ditugulako baizik. Zer egiten zuen halako txoro batek futbol zelaian labanarekin? Denok dakigu, haserraldi batean nahi ez duguna ere esaten dugula, baina ohitura bezala horrela aritzen direnak gizartean kalitatate gutxikoak dira. Barruko gorrotoa atera behar dute lekuren batean eta zergatik ez futbol talde baten gerizpean? Agian, pertsona moduan egiteko gai ez direna, 'biolentzia'ren izarapean ezkutatu nahiko dute?

**"Ezertarako ez nuke nahi politikan sartu, ezta gutxiago ere, baina hainbeste aldiz entzun behar izan dugu euskaidunok 'biolentoar garela! Orain nik gustura gaidetuko nieke bi hankadun asto horiei: Ibiolentoaki nor dira?"**

Nire ustez hau ez da kirola inondik inora, eta ez du kirolarekin zerikusirik ere. Eta arduradunei honako hau galdetuko nieke: zein edo eta zer dago madarikatu hauen atzean? Zertan bihurtu da goi mailako kirola horrelakorik gertatzeko?

Zoritxarrez, askoz ere errazagoa da hau idaztea, arazoa konpontzea baino. Hala ere, ez duzue uste norbaitek zerbait egin beharko lukeela?

## Barrak, Birrak eta Barreak




KoKoEK APFUZIRA EMAN NAM PU, KOMIKI HAU EGITEFAKoAN ANIMAWA A EZ. PUH-A FZTERIK JASAN.

# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTZA1LEA Elgoibarko Udala
ZUZENDAR1A Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA Miren Moreno
MAKETATZAILEA Bea Ansola
AomustaAzioA Amaia Martin
GERENTZEA Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegi, Ana Arletxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garale, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorrili, Alberto friondo, tñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, tban Urizar, Miren Vallejo.
AZALEKO ARGAZKIA Jesus M. Sarasua
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1038/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako oldizkaria.*



fundazioa
fundacir5n

'DANOBAT

GRUPO DANOBAT




## HIESa denon arazoa da?

Orain dela egun batzuk, Enotatxok HIESari buruzko ekitaldiak antolatu zituen prebentzioaren alde eta VIH duten pertsonei elkartasuna adierazteko. Lehendabizi, Elgoibarko kolektibo eta herritar batzuei gure eskerrak luzatu nahi dizkiegu, bai euren presentziarengatik, bai Erregistroaren aurkako sinadurengatik, eta baita lazo gorria jartzeagatik ere. Ondoren, egun horietako ekitaldien balorazioa egiteaz bat, testu honen izenburuari buruzko eztabaida plazaratu nahi dugu:

- Gaztetxean izan zen seropositiboen Erregistroaren hitzaldian, partehartzea ondo egon zen eta mahaingurua oso interesgatTia iruditu zitzaigun.

- HIESaz hildakoen omenaldian eta giza-katean herritar gutxi ikusi genituen. Kanpotarrak egon ziren batez ere.

- Abenduaren leko kontzentrazioan asistentzia oso eskasa izan zen. Elgoibarko komunikabideak ez ziren agertu (E1 Correo izan ezik), ezta erakunde publikorik ere. Helburua zera zen: seropositiboen eta hauekin bizi direnen eskubideak bortxatzen dituen enrgistroaren aurka azaltzea. Bestalde, oso balkoi gutxitan jarri zen zapi zuria lazo goiTiarekin, dendak kenduta.

Hau guztia kontuan hartuta, HIESaren inguruan dagoen desinteres orokorra eta gizartearen geIdotasuna azpimarratu nahi ditugu.

Badirudi prebentzioa eta elkartasuna pertsona famatuen eginbeharra dela telebistan urtean behin agertzeko.

Jendearen ikuspuntua okerra dela somatzen dugu; botikei esker lortzen ari diren aurrerakuntzak direla-eta lasaitu egin gara. Gaur egungo egoera ikusita, ez dugu prebentzioa aintzat hartzen.

Seropostibikoekiko elkartasunik eta sentsibilitaterik ez dugu ikusten, arazoa denona izango ez balitz bezala. Hau agerian geratuko da Gobernuak seropositiboen Erregistroa egiten duenean. Bitartean, erakunde publikoek Giza Eskubideen 50.. urteurrena ospatuko dute.

Errotatxok bere buruari kritika egin dio, zuengana mezua helarazten jakin ez cluelako. Gure artean eztabaida sortu da gure lanaren bidea egokia den ala ez jakiteko. Eztabaidaren ostean Errotatxo kolektiboa ez bada desagertzen, gure helburuak zehaztu beharko ditugu beniz.

Interesatuoi zuen iritzia eta ikuspuntua ematea eskertuko genizueke: kolektiboaren papera, dinamikaren akatsak eta etorkizunerako irtenbideak.

Errotatxo Elkartea

## ILan Baldintza Duin Batzuen Aldei

Idatzi honen bidez, 'Lan Baldintza Duin Batzuen Alde" ETTen aurkako talde berriaren hasiera iragarri nahi dizuegu elgoibartarroi. Gure lanaren helburua, hasiera-hasieratik, elgoibartar guztiak eta, bereziki gazteak, lanaldi mugatuko enpresek langilegoari sortzen dizkioten egoerei buruz informazioa ematea da, eskutiz bidez, kalean eta enpresen aurrean kontzentrazioak eginez, esaterako.

Horregatik, elgoibartar guztioi dei egiten dizuegu gure ekintzetan parte har dezazuen, ikasle zein langile. Azken batean, guztion arazoa da ETTen kontua: langileena. edozein momentuan langabezian gera daitezkeelako, eta baita ikasleona ere, lan munduan hasterakoan eskubide batzuk ditugulako. Aipagarria da langilegoaren soldataren zati garraintzitsu batekin geratzen direla ETTak.

Annaltzeko, berriz ere gure ekintzetan parte hartzeko deia egiten dizuegu.

Laster hasiko gara ekintzekin eta izango duzue hauen berri. Laster arte.

ETTei sua!!

Gazteontzako bizitza eta lan baldintza duinen aIde.

`Lan Baldintza Duin Batzuen Alde' Elkartea

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik, Eskutitz guztiek ondo identilikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko,
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

## OHARRA:

**Esku artean duzuen hau da urteko azken zenbakia. Hurrengoa URTARRILAREN 15EAN KALERATUKO DUGU. Ordura arte, ondo pasa Gabonak eta Urte Berri On!**

## KEXAK

• Pilar ikastetxeko mutil talde batek ondoko kexa eta eskaera azaldu nahi du: **"txakurrek kale erdian egiten dituzte beharrak eta gero hor geratzen dira. Jabeek ez dituzte jasotzen. Ezin al da txakurrentzako komunik jarri?**
**Bestalde, Erretxindiko parkea oso gaizki dagoela salatu nahi dugu.** Iturri bat eta kolunpioak jartzea ondo egongo litzateke".

## TXALOAK

• Emakume batek **Artazo baserriaren aldeko jaialdiaren antolatzaileak txalotu nahi ditu.** "Honelako jaialdi bat antolatzeak daukan lan izugarda ikusita, publikoki errekonozimendua merezi dutela uste dut. **Txalo bat baita ere, Elgoibarko herriari.** Herriko Antzokia jendez beteta zegoen eta guztioi esker, Artazo baserria berriz, altxatzea lortuko dugu".

• "Herritar bat naiz eta zeharo harrituta geratu nintzen Elgoibarko Jaiotza ikustera joan nintzenean. Urtero egiten duten lana oso ederra izaten da baina begibistakoa da aurten sekula baino gehiago ahalegindu direla. **Txalorik eta zorionik beroenak Jaiotza egiten duzuon guztiontzat.** Eta herritar guztioi aholku bat: joan zaitezte Jaiotza ikustera, merezi du eta".

# BAI, ESAN?





112

EGINgo dugu taldekoa

1999ko urtarrilean irtengo da kalera EGIN ordezkatuko duen egunkari berria, Ekainean Garzon epaileak EGIN ixteko erabakia hartu zuenetik, Euskal Herriko hainbat herritan egunkari berria martxan jartzeko batzordeak antolatu dira. 1.000 milioi lortzea da helburua. Elgoibarren ere bada lantalde bat eta bertako kidea den **Maite Izagirreri** deitu diogu gai honen intguruan berba egiteko.

**- Azaroaren 29an aurkeztu zen proiektu berria, ezta?** Bai, hala da. Azaroan aurkeztu genuen proiektu berria. Asko pentsatu eta gero, GARA izenarekin aurkeztu genuen Anoetako EGIN zaleen aurrean. Jorge Oteizak egindako logotipoa darama eta Mertxe Aizpurua usurbildarra da zuzendaria. GARAk hartutako konpromezua Euskal Herriko errealitatea azaltzea da; mugimendu eta sektore behartsuenei ahotsa ematea. Egunkari nazionala izango da, noski, Euskal Herriaren lurraldetasuna eta burujabetasuna defendatuko duena. Garbiago esateko, abertzalea eta ezkertiarra.

**Zein dira berrikuntza nagusiak?** Irudi aldetik dotoreagoa eta modernoagoa izango da. Eduki aldetik irakurle askoren nahiak asetuko dituen informazioa, kultura, kirola, denborapasak, zerbitzuak etab. izango ditu. Sorpresak ere badaude, baina ikusiko dituzue GARA eskuratzen duzuenean. Euskarari ere espazio gehiago emango zaio eta erabat berritzailea izango da frantsesek ere euren tartetxoa izango dutela, Hego Euskal Herrian gehiago irakur dadin.

**- Zuen ustetan, zelako harrera izango du egunkari berriak?** 20 urtean EGIN Euskal Herriko bigarren egunkaria izan dela kontuan izanik, nahiz eta salmentan boikota, oztopoak eta kontrako egoerak jasan (gogoratu EGIN itxi eta arduradunak espetxean daudela oraindik), dudarik ez daukagu GARAk sekulako harrera ona izango duela eta EGIN baino gehiago salduko dela.

**Elgoibarko batzordean zentratuz, esango al diguzu zer den hilabeteotan egin duzuena?** Elgoibarko 'EGINgo dugu' taldekoak jo eta ke gabiltza azken 3 hilabeteotan. Lehenengo batzarrean proiektu berria aurkeztu genien EGIN zaleei. Geroago, prentsaurrekoa ere egin genuen eta azkenik, dirua batzen gabiltza.

**- Dirua biltzea izan da zuen zeregin nagusia.** Nagusia ez dakit, baina neketsuena bai. EGINen salmenten arabera, Elgoibarri 8 milioi batzea tokatzen zitzaion, guztira 1.000 milioiko kopurua lortzeko.

**Bete al duzue Elgoibarri zegokion helburua? Eta 1.000 milioiak lortzerik bai?** Taldekook baiezko apustua egin genuen eta baita lortu ere. Dagoeneko 10 milioitik gora jaso ditugu eta oraindik kanpaina irekita dago. Nondik lortu diru gehiago? Nondik izango da ba, EGIN zaleen esku zabaletik! Atera kontu Elgoibarren badagoela proiektu honen zain dagoenik, eta beste herrietan, nik dakidala behintzat, berdin. Abenduaren amaieran, 1.000 milioi pasatzeko asmoa dugu, ziur.

Ilusioz espero dugu GARAren jaiotza eta guk eta zuek, denok edukiko dugu lekua GARAn.

# Elgo'bdr hied RRAL 01 billurfij da

*Urterik urte berrikuntzak egin eta ikusleak harrituta lagatzea ez da lan erraza. Horretan dihardute urte osoan Parrokiako Jaiotza prestatzen duen taldeko kideak eta, egia esan, aurtengo emaitza aho zabalik geratzekoa da. Izan ere, Leku-Ederreko lokalera inguratzen diren guztiek, gure herriaren birprodukzioa ikusi ahal izango dute: San Bartolome eliza, Udaletxea, erreka aldeko Errosario kaleko etxeak.... Ez da detailerik falta. Astelehenetik, hilak 21, ikusgai dago Leku-Ederreko lokalean.*

Pepi da Jaiotzako familia osatzen duten kideen artean zaharrena. Izan ere, berau izan zen mugimendua jarri zioten estreinako irudia. Pepik egun osoa ematen du arropak garbitu eta garbitu eta ondoren, handiagoak eta ederragoak diren figurak jarri dituzten arren, guztien artean maitatuena izaten jarraitzen du. 4 cm. inguruko irudia dugu Pepi. Haren ostean egin dituztenek ia 15 cm. neurtzen dituzte. Bada alderik! Dena dela, guztiak irudikatu behar dira, itxura eman, jantziak egin, eta, nola ez, mugimendua eman. Guk ikusten dugun Jaiotzak bizirik dagoela dirudi eta horren atzean ahalegin eta neke handia dago, baina baita ilusioa ere.

20 URTEKO OHITURA

Denboran atzera egin behar da Parrokiako Jaiotza estreinakoz noiz jarri zen jakiteko. Badira 20 urte Gabon inguruan elizan Jaiotza txiki bat jarri zenetik, gaur egungoarekin zerikusirik ez zeukana. Kontua da, poliki poliki, irudi berriak sartzen hasi zirela, dekoratua hobetzen, argiak erabiltzen... Eta uste orduko, jaiotza txiki hura handitzen eta handitzen joan zen. inguruetako Jaiotzarik ikusgarriena bihurtu arte.

Kobazuloak, estalaktitak, ur-jauziak, eta bizirik zeuden arrainez betetako errekatxoa ohiko bihurtu dira Elgoibarko Jaiotzan. Esan digutenez. "erronka handia da urtero urtero berrikuntzaren bat asmatzea eta ideia berriak beti azaltzen diren arren, ideia horiek gauzatzeko lan asko egin behar da. Taldean badago urte osoa lanean pasa duenik eta, hala ere, azken orduan presaka eta harrapataka ibili behar izan dute inaugurazio egunerako dena prest izateko".





## PARROKIATIK LEKU-EDERRERA

San Bartolome Parrokia berritzeko obrak hasi zituzten 1993an eta ezinezkoa izan zen Gabonetako Jaiotza bertan kokatzea. Pena zen obren eraginez Jaiotzarik ez jartzea eta beste lekuren baten bila aritu eta gero, Leku-Ederreko lokala eskaini zieten. Tokiak apropossa zirudien, metro karratu aldetik ondo zegoen eta, gainera, Parrokiaren ondo-ondoan. Ordutik gaur arte, kokagune hori izan du Jaiotzak nahiz eta, "gure asmoa, lehenbailehen Parrokiara bueltatzea izan. Azken batean, ez dugu ahaztu behar Parrokiako Jaiotza dela". Edozein modutan, Leku-Ederreko lokalak aukera berriak eskaini zizkien taldekideei. Esate baterako, lehenengo urtean hormak telaz estali eta margotu egin zituzten eta arku ilara izugarri polita eraiki zuten Jaiotza inguratuz. Urtez urte lokala egokitzeko lanak egin dituzte eta aurten, orain arte zementozkoa zen zolua berdindu egin dute eta ezinduentzat behar bezala egokitu.

## ELGOIBARKO TXOKOAK

Taldekide guztien artean erabakitzen dute zer eta nola egin. Izan ere, beti saiatu dira Jaiotzari ukitu berezia ematen eta, ahal den neurrian, garaian ko irudiak sartzen. Aurten, halere, orain artean guk ikusitako Jaiotzarik harrigarriena osatu dute. Aurrez aurre Elgoibarko herriaren erdi aldea dago ikusgai: San Bartolome Parrokia, Udaletxea, Plaza Haundiko etxeak, Deba ibaia eta bazterreko etxebizitzak... Eta horiek guztiak detailerik txikienarekin. Izan ere, 40 urtetik gora dituzten argazkietan oinarritu dira garai hartako Errosario kaleko etxeak eta Txankakua zubia birproduzitzeko. Gainera, Parrokiako kanpaien doinua ere ondo baino hobeto entzun daiteke.

Jose, Maria eta Jesus haurtxoa, Pepi arropa garbitzen, txistona frijitzen ari dena, arotza egurra mozten, etxekoandrea alfonbra astintzen, amonatxoa sehaska kulunkatzen eta beste hainbat eta hainbat irudi ikus daitezke, ohikoak. Baina, Jaiotzaren taldekoek, Elgoibar birproduzitzeaz gain, henian bizi ditugun ospakizunak ere isladatu nahi izan dituzte. Horren adibide, Jaiotzan dauden dantzarien eta txistularien irudiak dira. Honela, omenaldia egin nahi izan diote Haritz Euskal Dantzari Taldeari, aurten 25. Urteurena ospatzen duela eta. Gainera, kontuan izanik protagonista Elgoibar dela, eraiki dituzten etxeez gain, ingurua ere behar bezala txukundu eta egokitu nahi izan dute. Horrela bada, Karakate marraztu dute horman, gure herriko mendi-gailur adierazgarriena dena eta honen oinean, San Roke eta Zelandi baserriak ere ageri dira.



## ESTRESA

Gabonek bakea, adiskidetasuna, elkartasuna, familiarteko giroa eta antzeko ezaugarriak isladatzen dituzte. Badirudi Jaiotzaren antolakuntza ere giro lasaian egin behar dela. Baina, esan digutenez, gauza berriak egin nahiak denbora aldetik justu ibiltzea dakar. Aurten, esate baterako, azkenengo ukituak arrapaladan egin behar izan dituzte eta inauguratu baino hamar egun lehenago hainbat eta hainbat detaile zeuden josi gabe. Hobby bat izatetik, lana izatera pasa da Jaiotzaren antolaketa. Estresa zer den ondotxo dakite Jaiotzaren Batzordekoek, nahiz eta gero, jendearen ikusmina ikustean eta herritarren onespena jasotzean, pasatako une txarrak ahaztu eta hurrengorako gauza berriak pentsatzen hasten diren.

Aurtengo Jaiotzaren maila gainditzea ez da lan erraza izango. Halere, esan digutenez, "garai bateko Jaiotzaren izpiritua gordetzen saiatu izan gara beti, horrek baitu benetako xarma. Hurrengo urtean ez dakigu zer gertatuko den. Une honetan, hain gaude nekatuak gauza sinpleren bat egitea besterik ez dugula pentsatzen. Hori bai, eraiki ditugun etxebizitzak eta Parrokiak bere txokoa izatea gustatuko litzaiguke. Pena litzateke, hartu dugun lana hartuta, urtean behin ikusi eta nonbaiten gordeta lagatzea".

*Beheko argazkietan, Jaiotzako hainbat xehetasun. Azpian, Jaiotzako Batzordekoak.*







# Zeini oparituko zenloke ikatza?



**M. DOLORES OUTUMURO**
43 urte, admini'straria

Politiko guztiei. Hasieran gauza asko agintzen dituzte baina gero, euren interesa bakarrik hartzen dute kontuan.



**LUIS LARRANAGA**
68 urte, jubilatua

Bill Clinton-i. Monica Lewinsky-rekin euki daban istorixia tapatzeko Irak bonbardeau dau eta hori lotsagarrixa da.



**MARIA DE LOS OJOS**
14 urte, ikaslea

Nire anaiari. Oso gaiztoa da eta asko sartzen da nirekin. Beti dago zirikatzen. Merezi du.



**M. LOURDES SANZ**
73 urte, etxekoandrea

Bidegabekeriak egiten dituzten guztiek merezi dute, baina ez ikatza. Beste zerbait txatTagoa merezi dute horiek!



**ENRIKE GORROÑO**
41 urte, dekoratzailea

Espainiako presidenteari, Aznarri. Ideologia alde batera lagata, ez du karismarik. Gainera, Euskal Herria ez du kontuan hartzen,



**IÑIGO GARAY**
9 urte, ikaslea

Nere gelako batzuek merezi dabe ikatza, nerekin sartzen diazelako. Txikitan neri ere ekarri ziaten ikatza, baina nik eskatu nabalako.




LARRAÑAGA
autoeskola
Gabon jai zoriontsuak!
Santa Ana.11- 943 741011


GARkTE
Jantzidencli
San Bartolome, 13
Tel: 943 74 11 29
scotch&soda
casuals
ZONE
A NATURAL HISTORY
privata
ICHABOD CRANE THE NEW JERSEY
Levi's
RUDY SCHAY
Manitas
Love
urban Web
LibeRto
Individual
DOCKERS
Larunbat arratsaldeetan
zabalik


Juan Mari Uranga
Banatzaile ofiziala
• Gailur Ardandegien banatzailea • Errasti Bodegak - Txapeldun Ardoak • Zudugarai Txakolina
Ondo bukatu urtea eta berria hobeto hasi!
Gure mahastietan landutako aleak zuzenean bodegara.
Bodega[redacted]ahaira zuzenean.
San Inazio, 3 behea · Tel: 943 74 33 25

# Gabonak dira!

Ez dago egunik propagandak gainezka egiten ez duenik. Egunero buzoia zabaldu eta hantxe, zirkinik egiteke, gure begien aurrean kolore eta mezu guztietako zabalkunde-orriak esku artean murgiltzen zaizkigu: `si lo encuentra mas barato le abonamos la diferencia; mucho ma's que ahorrar; compra como siempre y disfruta como nunca'. Hori bai, gehienetan gaztelania hutsean, badaezpada. Helburua, geuk, erosleok, erostea. Horretan aritzen direnek makina bat tranpa jartzen dizkigute, eta gu askotan erori. Kontua da erostea, kontsurnitzea, dirua gastatzea, xahutzea. Horretarako ditugu Gabonak. Jai hauetan hartzaren antza hartzen dugu, baina, negua pasa bitartean bera jan gabe dagoenean, guk jateari gogoz ekiten diogu.

Gabon gauetik hasita Errege eguna pasa arte, geure buruan bueltaka ibiltzen den hitza jan, jan, jan eta jan da. Zairen bizitzeko moduan gaude. Ematen du urtean zehar goseak tragatuta egoten garela. Jatera behartuta gaudela dirudi. Hortxe egoten dira zain gure tripa zaharrak beteko dituzten jakiak: turroia, arkumea, otarrainskak, angulak, barkatu gulak,... Gutxi izango dira kilorik hartu gabe pasatuko dutenak. Zororen bat edo bi kenduta, gehienok, uda partean horrenbesteko kontu egindako gerri buelta hori desitxuratu, deformatu egingo dugu.

Egun hauetan, gutxi direlako edo, gurasoak oso eskuzabalak dira. Haurrengan bolkatu egiten dira, eta iniziatibak eskatu ordez, zer eskatu huraxe eman.

- Amal Hitz egin, pixa eta kaka egiten duen panpina nahi dut.

- Aita! Rivaldoren kamiseta sinadura eta guzti nahi dut.

Eta aitak, ez dakit nongo aldizkaritan topatutako firma ahalik eta ondoen egin nahian, prakak bete lan hartzen ditu.

Dena eginda ematen zaie umeei. Jolasa helburu material bihurtzen dugu, sortze lana alde batera utzirik. Ondo pasatzeko edo fantasia lantzeko helburuak ez ditugu aintzat hartzen eta umea aspertu egiten da.

Horrelakoak dira horrenbesteko ospe eta fama duten jaiak. Gabonak alde batera laga gabe, ez dira ahaztu behar gizarteak pairatzen dituen makina bat arazo: Iangabezia, presoak, HIESa...

Saia gaitezen tamainan jaten eta edukatiboak, hezitzaileak izan daitezkeen jostailuak erosten; gure poltsikoak, kolesterolak eta umeek eskertuko digute eta.



Juan Luis
Mugertza Unanue

# iSPiLUARI



ONINTZA
ARANBURU

**Aranhuru bitxidendakoa**

- Noiz esan dizute azkenekoz "joya" bat zarela?
Kasualitatea da, baina duela gutxi esan didate.
Zein da saldu duzun bitxirik baliotsuena?
- Brillantedun kolgante bat. Enkargu bat izan zen. Oso denbora gutxian egin behar izan genuen eta benetan baliotsua da ez prezioarengatik, intentzioarengatik baizik.
- Arduratzen al zarete beste bitxidendek egiten dutenaz?
- Bai, gure obligazioa da. Halere, gure bezeroak nahiko leialak dira eta gehiago begiratzen diogu modari eta fabrikanteei.
- Noiz izan duzue lapurreta azkenekoz?
Ez dugu lapurretarik izan, baina saiakerak bai.
Eraztunak ikusgarria ala sinbolikoa izan behar al du?
- Sinbolikoa. Intentzioak gehiago balio du ikusgarritasunak baino.
Ongi aukeratzen al duzu zer ipini eskaparatean?
- Bai, eskaparatea da saltzailerik onena.
- Ba al dago salmentak handitzen diren garairik?
Bai, Gabonetan batez ere.
Zein bitxi duzu gustukoen?
- Diamanteak eta perlak, baina aukeratzekotan, diamanteak.
- Sinesten al duzu betirako maitasunean?
Bai, zaila da baina posible dela uste dut.
- Jendea, dituen bitxien arabera neurtzen al da?
Ez, jendea hori baino gehiago da.
- Noiz jazten dituzu bitxiak? - Ez ditut askotan jazten.
- Zein da urrearekin ordain ezin daitekeen balorea? Leialtasuna.
- Zein beste negozio jarriko zenuke?
36 urte daramatzagu honetan eta oso errotua dago. Hala ere, ezin da jakin.
- Lan honek duen alde ona?
- Inoiz ez zara aspertzen, beti dago gauza berriren bat.
- Alde txarra? - Akaso ordutegia, ez da batere flexiblea.
Denbora urrea al da? - Bai, argi eta garbi.
- Zein dira egungo tendentziak?
- Batez ere urre txuria eta distirarik gabeko urre horia, matea.

Arnaitz Gorriti

## • Ertamerikarako laguntza proposamena egin du Gazte Asanbladak

Gazte Asanbladak prentsa ohar batean aditzera ematen duenez, proposamen bat luzatu nahi dio Udalari. "Gabonak, itxurakeria eta kontsumisrno erraldoi dosi handiko garaiak dira. Gabonetako argi hortera horiek kendu eta argiztapenean gastatzen dituzten milaka eta milaka pezetak Ertamerikara bidal dezatela proposatu nahi diegu Udaleko arduradunei". Gazte Asanbladakoen iritziz, horrelako gauza bat egitea ez da karitatezko ekintza bat, "Lehen Munduak ostutako zati txiki bat herrialde hauei bueltatzea izango litzateke". Proposamen hau ez bada aintzat hartzen, "laguntza hango herritarren erakundeetara zuzenean bidaltzea eskatzen dugu, zuen bihotzetan elkartasun hondar bat gelditutko delakoan".

## • Elgoibarko gune historikoaren ikerketa martxan dago

DEBEGESAk eta UdaIak Elgoibarko Gune Historikoaren errehabilitazio prozesuari ekin diote eta horretarako herri erdian bizi diren herritar guztien kolaborazioa eskatu nahi dute. Datozen egunotan inkesta bat bidaliko zaie bizilagun guztiei eta egun batzuk beranduago, DEBEGESAren izenean zenbait lagun etxez etxe joango dira inkestak jaso eta datuak batzera.

# 100 saltoki inguru egongo dira hilaren 2Gko Gabonzahar azokan

### Urtero bezala, gazta, fruta eta barazki lehiaketa izango da



Urteko azken zapatuko feria, Gabonzahar feria hain zuzen, hilaren 26an izango da. UdaI Kultura Sailetik aditzera eman digutenez, 100 bat saltoki egongo dira aurten. Bertan landutako barazkiak, frutak, hegaztiak, gazta, baserriko ogia, eztia, gozogintza, taloak... denetik dastatzeko eta erosteko aukera izango dugu.

**Gazta lebiaketa**

Barazki eta fruta lehiaketarekin batera, Goikorrota Elkarteak eta Udalak XVII. Gazta Lehiaketa antolatu dute. Urtero bezala, ardi esnez egindako gaztak dastatu ondoren, onenak sarituko dira. Irabazleak 65.000 pta. cta diploma jasoko ditu. Era berean, barazki eta fruta lehiaketan, lehenengo hiru onenak sarituko dira eta saltoki onenak eta herriko onenak ere sari bana jasoko dute.

**Sendabelarren erakusketa**

Gabonzahar azokaren bueltan, Karakate Mikologia Elkarteak sendabelanen erakusketa antolatzen du bi ttrtetik behin. Gehien erabiltzen diren sendabelatrak zein diren ezagurzeko aukera izango da eta guztiak izen fikoarekin eta euskarazko izenarekin identifikatutako egongo dira. Sendabelar bakoitzak zehaztuta izango du zein gaixotasun sendatieko erabiltzen den.

# Herriko Antzokla bete egin zen Artazo baserriaren aldeko jaialdian

### Ekitaidian 360.000 pta. batu ziren eta EHNE sindikatuak 95.000 pta. eman ditu

Antolatzaileak benetan gustura geratu dira aurreko ostiralean, hilak 18, Artazoren aldeko jaialdiak izan zuen estimazioarekin. Herriko Antzokia beteta zegoen gaueko 22:30erako eta jendea adi-adi egon zen jaiadiak iraun zituen hiru orduetan. Jaialdian kantua, balleta, euskal dantza, antzerkia, trikitia etab. izan ziren ikusgai eta entzungai. Honez gain, Gemma Monreal margolariak kuadro bat oparitu zien Artazokoei. Jaialdi honekin Artazo basenia berriz altxatzeko beste pauso bat eman da, eta poliki-poliki ari dira bi helburuak betetzen: bat, baserri berria eraikitzeko dirua bidu, eta bi, beharra daukan jendearekin solidarioa izan. Diru kontuei dagokienean, jaialdian 360.000 pta. batu ziren eta bestalde, azaroaren 15ean baserritarren EHNE sindikatuak 95.000 pta. eman zituen.







## Andpes Elizondoren animazio bideo bat saoltu dute Leikeitioko txapelketan



Andres Elizondo 33 urteko elgoibartarra da. Egunez tornillo lantegi batean aritzen bada ere, gauez gehien gustatzen zaiona egiten du: 3 dimentsiotako animazio bideoak. 8 urte daramatza animazioaren munduan eta •Amiga 2.000' modeluko ordenagailu batekin egiten du lan. Horrela, bada, Lekeitioko Zine eta Bideo TxapeIketara aurkeztu eta animaziozko bideoen atalean bigarren saria irabazi du. Saritutako bideoa, animaziozko sinboloen laburmetraia da. Andresek Murciako Lorca herriko "Muestra de Imagen' lehiaketan ere aurkeztu du beste lan bat. "Oraingoan ez dut saririk irabazi, baina 130 lanetik 30 baino ez dituzte lehiaketarako hautatu eta horietako bat izan da nirea. Oso harro nago, asko eta asko profesionalak baitira". Arte kontzeptuala egiten duela esan digu Andresek, 'Real 3D' programa erabiltzen dut, oso zaharra da, baina niretzat erabilgarria".



## Euskal Filmategia zine klubean

Abenduaren 17an, Ongarri Zine Klubekoek Euskal Filmategiari eskainitako saioa antolatu zuten. Peio Aldazabal Filmategika zuzendariak Euskal Herriari buruz egindako estreinako bi filmeen aurkezpena egin zuen. Honez gain, FiImategiaren funtzionamenduari buruzko azalpenak ere eman zituen. Segidan, 1930ean egindako `0 des Pays Basque' filme mutua eta 1928 urteko mayorazgo de Basterretxe' pelikula ikusteko aukera izan zuten 70 bat zinezalek.

## tUrrezko' bikoteak

Jubilatu Etxeak amenaldi beroa egin zien hilaren 18an, aurten urrezko eztaiak bete dituzten herriko bikoteei. Argazkietan ikus daitekeen bezala, lore sorta ederra eta Udalak emanclako kuadro bana jaso zuten omenduek. Ondoren, agintariek, omenduek eta 80 urtetik gorako jubilatuek bazkari ederraz gozatzeko aukera izan zuten Katekisten eskutik.





## Horrelako moto dotorerik gutxii

Paco Linares ONCEko saltzaile ezagunak duela hilabete eskas eskuratu du argazkiko motoa eta esan digunez, "bakarra da inguruatan". Orain arte mato arrunt batekin ibili izan da Pako hara eta hona baina, euria egiten zuenean bustitzeaz asper-asper eginda zegoenez, beste ibilgailu bat erosteko erabakia hartu zuen. "Hasieran auto txikia erostea pentsatu nuen baina *Carrocerfas Barolako* arduradunak moto hau erakutsi zidanean, ez nuen zalantzarik izan". Motoa Alacantetik ekarri diote eta 5 errobera ditu, bi aurrean eta hiru atzean. Bi lagun joan daitezke eta estalki bat dauka euritik eta hotzetik babesteko. Lila eta beltz kolorekoa da eta 50 km hartzen ditu orduko 50 zaldiko potentziari esker. Moto honengatik 800.000 pta. ordaindu ditu Pacok.



*Gaur egun Elgoibarren bizi den arren, 58 urte bete berriak dituen emakume hau Mendaroko baserri batean jaio zen. Zazpi anai-arreben arteko gazteena da eta adierazi digunez, familiako bost neskek izan dute eskulanekiko zaletasuna, berak eta beste bik batez ere. Zaletasun horrek bultzatuta edo, bere denbora librea gantxiloa egiten ematen du. Afizio hori dela-eta gure artera ekarri dugu, zehatzago esateko, Elgoibarren gantxiloa erakusteko ikastaro batean irakaslea izan delako.*

# "Gantxiloa ondo egiteko pultsoa, bista eta pazientzia behar dira"

## M. KARMEN Elorza

**—Nondik datorkizu gantxiloa egiteko zaletasuna?**

- Estreinakoz, zortzi urte nituela ahizpa zahatTenak **haria** eta gantxiloa esku artean jarri zizkidan eta baita oinarri batzuk eman ere. Handik aurrera liburu eta grafikoetan begiratuz, piskanaka ikasi nuen. Hala ere, ikastea ez da sekula amaitzen, izan ere, beti agertzen dira liburu, modelo eta lan berriak.

**—Hau izan da zuk eman duzun lehen ikastaroa.**

- Bai, hala da. Niri Elgoibarko Izarratik esan zidaten zerbait antolatzeko asmoa zegoela eta ea ni gantxiloa egiten erakusteko prest egongo nintzatekeen. Lehendabizi, nire burua aztertu nuen horretarako gai izango nintzen jakiteko, eta azkenean baiezkoa eman nuen. Jende askok eman zuen izena, eta taldeak egitean zenbait arazo egon ziren arren, azkenean oso ongi moldatu gara bai ikasleak eta baita ni ere saltsa horretan. Oso giro ona sortu da gure artean, ikasle eta irakasle bezala baino denak lagun moduan egon gara. Neretzat asko balio izan du ikastaroak, konturatu bainaiz, hasieran zalantzak izan arren, nahiko ongi moldatu naizela gantxiloa erakusten. Ikasleak beraiek ere gustura egon direla dirudi eta horren adierazle da hain zuzen ikastaroa luzatzeko erakutsi duten nahia.

**—Zer jende mota etorri da ikastarora?**

- Denetik. Neska solterak zein ezkonduak, hogeita hamar urte ingurukoak, gazteak, nagusiagoak eta baita hirurogei urtetik gorakoak ere. Batzuk gaztetan eskolan ikasitakoa hobetze aldera etorri dira eta beste batzuk, aldiz, egunak dituen ordu break ahalik eta ondoen aprobetxatzearren.

**—Zer behar da gantxiloa ondo egiteko?**

Pultsoa, bista eta pazientzia izatea oso garrantzitsua da. Eskuetan dardara izanez gero ezin izaten da zuloan gantxiloa sartzen asmatu. Bista txarra edukiz gero ere ez da gauza ona, izan ere, horren hari mehekin lan egitea zaila da. Eta pazientzia, eskulan guztiek bezala, gantxiloa egiteak ere hori eskatzen du, orduei begiratu gabe Ian egitea, hain zuzen ere.

**- Zertan oinarritu zara ikastaroa aurrera eramateko?**

- Orain arte ez naiz inoiz honetan jardun. Beraz, dauzkadan grafikoalc hartu eta hasieran errazenak eman, eta bakoitzaren mailaren arabera, gero eta lan zailagoak jarri dizkiet esku artean. Ondoan jarri eta eginez erakusten saiatu naiz. Azpimarratu diedana zera izan da: grafikoa ondo ezagutuz gero, edozein lan egitera iritsi daitezkeela. Baina, azken finean, esku artean beti gantxiloa eta haria izango ditugula. Era berean, esan diet lan erraza eta polita dela, niri gantxiloak ordu polit asko eman baitizkit.

**- Zure ikasleak beren lanak kalean erakustera iritsiko al dira?**

- Ikasteko gogoa erakutsi dute eta gogoa daukanak aurrera egiten duenez, lan politak aterako dira. Ni ezkutatzen naizenean, honetan jarraituko duen norbait izatea gustatuko litzaidake, beraz, nik egin dudan bezala, lanak erakustera iristen badira, ni pozik. Gainera nire ilusioa beraiek gantxiloa egiten nik beste gozatzea litzateke.

**— Gabonetan gantxiloz egindako zerbait oparituko al zenuke?**

Opari berezi bat egin behar banu, toaila jokoa erregalatuko nuke. Harizko tela bati bainika puntila polit bat josi, eta ondoren, punto kruzean letrak egin. Dekorazio bezala txoko batean oso ongi gelditzen da.

**Irati Agirreazaldegi**



# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
'Er 943 74 32 38

**JUARISTI**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana,18
w 943 74 29 94

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
s' 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
72 943 74 03 96

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
943 74 17 61

**JAVI**
Erretxindi, 1
"a 943 74 14 80
1T 608 77 29 32

**JUAN CARLOS S.L.**
Urasandi 59-61, behea
n' 943 74 34 87

**ONGI**
Urasandi, 8
n" 943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin kalea, 13
943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
z* 943 75 50 62
z' 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
tr 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
'Er 943 74 07 89
z' 608 14 30 40

## AVUUL3,ffil

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
w 943 74 04 40
1T 607 74 04 40

**PINTURAS ELGOIBAR FERMIN**
Urasandi, 57-3
943 74 39 91
`Er 609 76 28 80

## IGELTSERITZA

WitmallP

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
943 74 34 18

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
'zr 943 74 29 87
689 58 47 23

**IPINTZA**
Trenbide, 25
607 41 78 67

**KIDEOK S.L.**
San Roke, 17
'zr 943 74 34 86
17 689 58 37 61

## I11ATG3,11EUEfflIffi

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
z' 943 74 12 80

**AZPELETA**
